## *goiz edo noiz?*

Gazte buru ero
gazte buru ero
asteburuero.
Laino artean hegan
ea norantz joaten dan.

Asko gara gero
asko gara gero
aske gara edo.
Non gabiltzan non gauden
jakin gabe nola den.

**Apurka-apurka, jolas soil bat zena,**
**irteerarikan ez duen bidean bihurtu da dena.**
**Non gelditu dira, momentu kuttunak,**
**ilusiorik ez du amestu gabe lo hartzen ez dunak.**

Gauez ilunargi
gauez ilunargi
egunez ilargi.
Zer den eta zer ez den
jada ez da bereizten.

Hau da zoramena
hau da zoramena
zoratzearena.
Nahiz ta goiza iritsi
ezin begirik itxi.

**Apurka-apurka...**

Dena probatzearen alde
dena, ezer pentsatu gabe
ikustezina da muga...
pentsatzeko berandu da!
Zer sentitzen den jakin nahian
sentimenduak galtzen dira
norberak soilik norberan sinisten duen
sustantzien uhartean!

hltzak: Jon Garmendia "Txuria"
musika: Xabier Solano, Kaki Arkarazo, Etzakit



# gaur



Joxiren
irrifar ametsa
Joxeanen
begirada eztia
lurrari
kendutako loreak
gordeak
gure bihotzean GAUR.

Josuren
ilusio galdua
Xantiren
bizitza zapaldua
Mikelen
zaurien krudeltasun
maitasun
oroitzapen dira GAUR.

Rafaren
Ana, Agurtzaneren...
Ramonen
Anjel, ta Agustinen
Bixente
David, Jose Mariren...
Non diren
nork hil ote zituen
norentzat
izen asko zituen
dituen gobernuak daki GAUR.

**Kriseilu baten argiz**
**zeruari begira**
**nora doaz non dira**
**galdutako ametsak**
**galdutako loreak**
**galdutako bihotzak**
**izen izan zirenak**
**zenbaki bihurtuak.**

hitzak: Jon Garmendia "Txuria"
musika: Xabier Solano



hitzak: Jon Garmendia "Txuria"

musika:
Xabier Solano, Kaki Arkarazo

# Urteak

Urteak
hogei igaro dira
ateak
itxi egin bailira
begira, uneoro ari da
herrira, lotzen duen harira.

Gertutik
urrutira pausoa
urrundik
hurbiltzen da presoa
jasoa, herriaren besoa
osoa, herria sentitzen du osoa.

**Helduko da bai eguna**
**lotura askatuko da**
**haizea ere aske den**
**egun hori helduko da.**

Badaki
barruan preso dela
kanpoan
herria den bezela
kartzela
ziega txikien gela
itzela, itzela sorterriak duela.

Presoak preso dauden artean herria ere
preso dago
borrokan dago
batak bestea askatuko duelako
bien edergai
bietan darrai!



## zarena

hitzak: Jon Garmendia "Txuria"
musika: Xabier Solano

Bakardadearen
argiak itzaltzean
maindire azpian
gorputz biluztuak
korapilatzen dira
laztan goxoetan.

Desioak banatzen dituzte
arduratu gabe
amorantea nor den edota
nolakoa den.

Sentitzen dutena
elkarri adieraziz
maitasun beroan
edertasunean
erreparatu gabe
barnean daukate.

Behatzekin gozatzen delako
ta ez begiekin
gorputz biluztuak parez pare
gauaren menpe.

**Goxo-goxo**
**maite zaitut**
**neurri gabe**
**mugarik ez**
**polita da.**

**Goxo-goxo**
**behar zaitut**
**zu zarena**
**zaren eran**
**zara eta!**

## ene kuttun

hitzak: Jon Garmendia "Txuria"
musika: Xabier Solano, Kaki Arkarazo, Etzakit

Ene kuttun
bata bestearena gaitun
ene kuttun
hitzak hain atseginak ditun
nik hartzen haut hik har nazan
kotxean, etxean, plazan
ene kuttun
sorgindu naun lehen ikutu(a)n.

Hona, hara
eguna pasa dinat jada
hona, hara
hirekin pasa nahian "gaua"
hagon lekuan hagola
maite haunat, eta nola!
Hona hara
sentituz bertatik bertara.

**Egunen joan-etorrian**
**hire ondoan**
**tentazio hitzak ahoan**
**hirekin jarraitu nahi dinat**
**hirekin egin**
**atsedenik gabe hitz egin!**

Ireki dinat neure atea
zabal-zabalik zegon maitea
hirekin nahi dinat gau eta egun
naizena bihurtzen nauen euskara kuttun!



## petru popari "beltza"

musika: Xabier Solano, Kaki Arkarazo, Etzakit

## egiNa

hitzak: Jon Garmendia "Txuria"
musika: Etzakit, Kaki Arkarazo, Ritxi Abril, Igor Telletxea

Hitzak ikasiz eta hizketan hasiz, irudimenean
geure pentsaerari aske izaten utzi genion aidean
elkartrukatuz, idatziz ta irratiz hegan geundenean
hitza nola ebaki daitekeen erakutsi ziguten bidean...
"Egin" hil nahiean!

**Eskurik esku "Egin" berria helburu**
**isildu gabe berdin hitz egingo dugu.**
**Eskurik esku ekin geroa seguru**
**geurea dugu eta "Gara" egin dugu.**

Egin ta egin, bultza ta bultza
denon ekimen, denon laguntza
egin behar da, egingo dugu
denon ekimen, denon helburu
herririk herri, zaharrak berri
herriak orri, orriak herri
ekarpenekin, elkartuz ekin
orririk orri, egin ta egin.

Bultza ta bultza, indarrak biltzen
indarrak bultzaz, indar berritzen
lehen baginen, orain bagara
indarrak biltzen, jaio da "Gara"
orain bagara, lehen baginen
jaio da "Gara", jaioak ginen
egin nahi zena, ekin ta ekin
egin da "Gara", "Gara" da "Egin".

## landakanda

musika: Xabier Solano





# d e n b o r a

hitzak: Jon Garmendia "Txuria"
musika: Xabier Solano

*(denbora)*

Begi itxiak begira
muxu goxo bat emanaz
gaua argitzen ari da
arren estutu nazazu
ez joan!

Arren esaidazu berriz
atzo zenion bezala
ezin duzula ni gabe
bizitza desioz bete.

**Aurrera doa dena, gu non gaude**
**bizi nahian joan da, oharkabe**
**denbora.**

Denborak eraman zuen
maite ginenaren xarma
berriro ekarri digu
eta berriro darama.

**Aurrera doa dena, gu non gaude**
**bizi nahian joan da, oharkabe**
**denbora.**

Itxi begiak itxi eman muxu goxo bat
badator berriz gaua
geneukana galtzetik
daukaguna galtzera
tarte txikia dago...

Denbora.

# *bizitzeko bizi*

hitzak: Jon Garmendia "Txuria"
musika: Xabier Solano, Kaki Arkarazo

Munduratzen garen momentu beretik
hiltzen hasten garela, pentsatzen gaude
ta urteak pasatzen zaizkigu aurretik
konturatu gabe.

**Hi nun bizi haiz hi?**
**Inun ez haiz bizi!**

Hil ondoren zer dagoen kezkapean
bizi denak ditu bi arazo gizen
erantzunik lortzen ez duela eta
ez dela bizitzen!

Disfrutatu gabe bizi dena zuzen
dihoa denbora alperrik galtzera
baina azkenean denborak alperrik
galduko du bera!

**Hi nun bizi haiz hi?**
**Inun ez haiz bizi!**

**Bizitzeko bizi**
**eta gaurtik hasi!**



## *kubana*

**Amodioaren sua iraultzaren barnean du.**
**Askatasunean bizi ta elkartasuna landu.**

Kuba
itsasoaren kolore
Karibeko lore
zorionaren muga.

Kuba duintasunaren irla da
lanaren islada
borrokaren lilura.

**Amodioaren sua iraultzaren barnean du.**
**Askatasunean bizi ta elkartasuna landu.**

Kuba
kainaberaren azukre
dena ezeren truke
dena denen eskura.

Kuba
sentimenduen errota
nahiz batzuk gorrota
eredu bihurtu da.

1000-700MM
WHITE





hitzak: Jon Garmendia "Txuria"

CFC FREE

musika: Xabier Solano, Kaki Arkarazo, Etzakit



kubana




# bihotz zatitua

Karrika ilunean barrena
euriz busti den lurrean pausoka
emakume bat aterkipean
etxerako bidean.

Beldurrik ez du baina
kezkaturik dihoa karrikan
bidean bakarrikan
sentitzen denean
(bakarrik karrikan).

hitzak: Jon Garmendia "Txuria" / musika: Xabier Solano, Kaki Arkarazo



Farola baten argi goibela
begiztatzen du urruntasunean
pausoen hotsak entzuten ditu
itzal bat daukala atzean.

Pausoa azkartuz
urduri jartzen ari da
aurrerantz dihoa, aurrera begira
pausoa azkartuz.

**Gauean gordetzen da**
**erasotuaren**
**oihu sufritua.**
**Gauean gordetzen da**
**malkoen artean**
**bihotz zatitua.**

Karrika ilunaren ertzean
farolaren argi goibel azpian
euri ttanttekin bustitzen dago
emakume baten gorpua.

Ondoan aterki bat
odol putzuan giltza batzuk
odol putzuan etxeko aterik
irekiko ez duten giltza batzuk.

**Gauean gordetzen da**
**erasotuaren**
**oihu sufritua.**
**Gauean gordetzen da**
**emakumearen**
**bihotz zatitua.**

